

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

## BAZTERKERIA ETA POBREZIA EGOERAK EKIDITEKO BALIABIDE ETA NEURRIEN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko ekainaren 19an Pertsonen Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Udalaren web orrialdean, “Gobernu berria Donostiarako” izeneko atala dago. Bertan, EAJ eta PSE-EE alderdiek osatutako Udal Gobernuaren programaren azalpena dator.

Udal Gobernuak honako balore hauek azpimarratzen ditu bere programan: eraginkortasuna, argitasuna, hurbiltasuna eta portaera etikoa.

Gizarte-ekintzako atalari erreparatzen badiogu, Udal Gobernuak dio Donostian bizi diren pertsonen bazterkeria eta pobrezia egoerak ekiditeko hainbat neurri aplikatuko dituela. Horien artean:

- *HESTIA –gizarte-bazterkeriaren egoeran dauden pertsonentzako EGUNEKO arreta-zerbitzua– hobetuko dugu. Hona hemen zerbitzu horren baitan jorratuko ditugun erronkak: zerbitzu horretarako kokaleku egokia bilatzea eta kalitateko zerbitzua emateko ekipamendua zehaztea.*
- *Apartamentu babestuen eredua ezarriko dugu bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzat Donostian, zerbitzuaren inguruko hausnarketa eta definizioaegin ostean.*
- *Programaren baitan sartuko diren etxebizitzak hornitzeko estrategia zehaztuko dugu.*
- *GAUEKO eta ABEGI ETXEA: aztertu egin behar da zein baliabide ditugun profil mota bakoitzari erantzuteko. Horretarako, ondo zehaztu behar dugu zein beharrezko erantzun dieten baliabide horiek. GAUEKOri dagokionez, zerbitzua hiru urtez martxan egon ostean, egungo lokala egokitu behar dugu arretaren kalitatea nahiz zerbitzuan lanean ari diren langileen lan-baldintzak hobetzeko. Gainera, beste kokaleku bat bilatu behar da zentrorako.*
- *Indarrean dauden baliabideen araudiak egokitu ditugu (Abegi Etxea eta Gizarte Larrialdietako Etxebizitzak), gaur egun dauden beharrezko hobeto erantzuteko.*

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

- *Gizarte-bazterkeriaren esparruan jarduten duten hirugarren sektoreko erakundeekin koordinazioa eta lankidetzaren areagotuko dugu.*

Begienbistakoa da, agintaldi erdia bete denean, Udal Gobernuak ez dituela neurri horiek inondik ere bete. Talde honek egindako azterketaren arabera, Udal Gobernuaren programan Gizarte-ekintza atalean jasotako neurrietatik, soilik, % 16 bete da eta beste % 29 aurreko legeingizalditik datotzen neurriak dira (Hestia, Gauekoa eta abar).

Ekaineko batzordeetan delegatuak adierazi zigun zaila gertatzen ari dela gobernu programan jasotako neurriak betetzea eta baliabideak antolatzeko profilen lanketa egin gabe dagoela.

Aipatu beharra dago baliabide hauen erabilera gora doala urtetik urtera, kasu batzuetan programa “paliatibo” bihurtzen ari direla (Gauekoaren kasuan, adibidez) eta plazen mugimendua oso eskasa dela.

Zinegotzi ordezkariak ez zuen zehaztu zein neurri gauzatuko dituzten datozen bi urteetan.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari larrialdietarako eta etxerik gabeko pertsonen arretarako programen (Gauekoa, Hestia, Abegi Etxea, Abegi etxe eranskina, Ate Irekien zerbitzua, larrialdietarako etxebizitzak...) erabiltzaileen profilen azterketa egin dezala, baliabide horiek hobeto antolatu eta erabiltzaileen beharrak eraginkortasunez artatu ahal izateko.
2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari zehaztu dezala zein hobekuntza egingo dituen larrialdietarako eta etxerik gabeko pertsonen arretarako programetan 2017-2019 urteetan.

Donostian, 2017ko ekainaren 22an



Olaia Duarte López  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia